



KARRANTZA HARANEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL VALLE DE
CARRANZA
(BIZKAIA)



MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUAK MODERNITZATZEKO 2019KO LAGUNTZA-PROGRAMA.



Merkataritzako
Bulego Teknikoak
Oficinas Técnicas
de Comercio

Merkataritzako ETEei zuzenduta dago; hain zuzen ere, establezimenduak modernizatzeko, irudia berritzeko eta saltokien erakargarritasuna handitzeko ahalegina egin duten enpresei dago zuzenduta, baita honako inbertsio hauen bitartez kudeatzeko tresnak hobetu egin dituztenei ere:

- A) Merkataritza-jarduera nahiz elementuak, barrukoak zein kanpokoak (merkataritza-errotuluak barne), garatzeko beharrezkoa den lokala, altzariak eta ekipamenduak eraberritzea eta modernizatzea.
- B) Salgaien balantza elektronikoak, ekipamendu informatikoak, horien aplikazio eta osagarriak, betiere merkaturatze prozesuetan badaude edo enpresa-kudeaketarako erabiltzen badira. Online-salmenta eskaintzen duten webgunean sortu eta ezartzea, baita webgunea gailu mugikorretara egokitzea ere.

Diru-laguntzen ehunekoak % 16 eta % 30 artekoak dira, eskatzailearen ezaugarrien arabera:

Diru-laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak hauexek dira:

- Laguntza jaso ahal izateko baldintza izango da, halaber, delako saltokia edo haren jabea den enpresa, eskabidea **aurkeztu baino 3 urte lehenagotik**, gutxienez, **jarduera komertzial bera egiten aritua izatea**.
- Merkataritza-establezimendu bakoitzeko onartutako inbertsioaren **gutxieneko** zenbatekoa honako hau izango da:
 - 4.000 euro, aurreko ataleko a) puntuan adierazitako inbertsioen kasuan.
 - 900 euro, aurreko ataleko b) puntuan adierazitako inbertsioen kasuan.
- Ekimen honetatik kanpo geldituko dira, farmaziak, ibilgailuen txikizkako saltokiak eta erregaiak nahiz lubrikatzaileak saltzen dituzten txikizkako saltokiak.
- Ibilgailuetarako ordezkoen saltokiek, bizikleta-dendek eta bizikletetarako osagarriak saltzen dituztenek diru-laguntza hauek jaso ahal izango dituzte.
- 2018ko uztailaren 3tik eskaerak egiteko epea bukatu arteko data duten fakturak onartuko dira.
- Inbertsioaren xede diren elementuak berriak izango dira, ez dira hirugarrenei lagako, eta enpresa eskatzaileak berak ezingo ditu fabrikatu edo garatu.
- Aktiboak gutxienez 3 urtez egongo dira enpresan.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da inoiz 9.000 euro baino handiagoa izango establezimendu eta urte bakoitzeko.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko ekainaren 30ean amaituko da.

Argibide gehiagorako: www.euskadi.eus

Argibideren bat edo informazio gehiago behar izanez gero, telefono zenbaki hauetan lagunduko zaitugu: 94 680 10 02, astelehenetik ostegunera, eta 647 633 497, ostiraletan (Mirenlarekin hitz egin).

Karrantzan, 2019 maiatzaren 23an

Sin. Alkatea,

Raúl Palacio

